

S E C C I O N A M E N A

DONOSTIYAN JUAN JOSÉ IGELSEROA ETA JOSÉ MARI PEOIYA.

Eche berritan, Colon-
go aldamenean,
lengoan biyak ari
ziraren lanean;
eta zortziyak jota
senti zala gose,
gosaltzelo eseri
zan gure Juan José:
zeñak epeldurikan
bere kasubela,
abiyatu zan jaten
an zeukan gibela:
ontan arrimaturik
peoi José Mari,
biziya aterata,
sardiñaren bati,
chancha gisan Juan Josek
esan ziyon: «*Jan zak:
ez egon kunplimentuz,
dagoenetik artzak:*»
bada ura izan zan
eskeintza arrena,
artzen asita berak
jan naizuben dena;

jabeak eskuba beiñ
luzatzen bazuben,
ark lau edo bost golpe
egiten zituben,
esanaz piper geicho
bezela zeukala,
bañan jan zitekela
charra etzegüela;
bukatu zan denboran
Juan Josereren salcha,
eztulka zan bankutik
Jose Mari alcha,
eta galdeturikan
zér suben eztulka,
ezin erantzun zuben
eju ta ejuka:
—Zér dek? ¿gaitz egin aldik?
¿geiegi aldeak jan?
—Ez: eju eju; kontra-
ko eztarrira juan:
—Egiya dek: nerea
juan bear zubena,
juan dek irera, ik dek
jan gosari dena.

RAMON ARTOLA